


NOLAKOA BEHAR DU EKINTZA
KOMUNITARIOAREN POLITIKA PUBLIKOAK
GIPUZKOAN?

SINTESI-TXOSTENA

1.tailerra: Gipuzkoan zertan ari gara?

2022ko otsailak 4



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro





Tailerraren **helburuak:**

- Ekintza komunitarioari zer zentzu eman nahi diogun lantzea
- Egiten duguna ezagutzea eta aitortzea
- Egiten dena aztertuta, ekintza komunitarioaren politika publikoen aurrean ditugun indarguneak/aukerak eta zailtasunak/mehatxuak identifikatzea.

Sintesi-txosten honetan tailerrean atera ziren edukiak laburbildu ditugu, taldeetan landu genuena elkar lotuz eta ideia gakoak azpimarratuz.

**AUKERAK eta
INDARGUNEAK**





- Udalek partekatzen dituzten espazio komunak edo harreman-guneak baditugu. Badaude gune konpartituak, aliantza inter instituzionalak, sareak eta txikien arteko aliantzak.
- Gure herrietan elkar ekintza sendoa, mugimenduan dagoen eta ari den gizartea daukagu. Gizarte anitza eta konplexuak. Kultura politikoan eragiteko akuilu diren mugimendu sozialak eta herritarrak.
- Ereduak, praktikak eta esperientziak ditugu, gaur egun martxan dauden hainbat adibide daude eta horietatik ikas dezakegu. Auzolana, adibidez, duela gutxira arte gauza asko egiten ziren auzolanean eta oraindik toki batzuetan badago. Hortik badugu ikastea. Ibilbide bat egin dago, eta ebidentziak daude garapen komunitarioak onurak dakartzala eta bizi-baldintzak hobetzen dituela: osasuna, ahalduntzea, parte hartzea, etab. Haur, nerabe eta gazte zerbitzuak ikuspegi honekin jarduten dira.
- Gogoia eta motibazioa dago hainbat profesional eta eragileren partetik parte hartzeko eta ekarpena egiteko. Profesional gaituak eta konpromisoa dutenak daude administrazioan eta inguruan.
- Udal barruan zeharlerrotasuna: sailen arteko dialogoa eta kolaborazioa; barrutik palanka lana egin dezakegu beste sailei beste ikuspegi/begirada bat ematen. Udal barruan aliatuak bilatzea. Egitasmo transbertsalak: berdintasuna, jasangarritasuna, partaidetza, inklusioa, Hezkidetzak eskolatik...
- Harremanak egon badaude: Aldundi barruan ere badaude sailen artean helburu konpartituak.
- Bestelako lorpenak lantzeko aukera: talde-kohesioa, ahalduntzea...



- Ekintza komunitarioaren ideia agendetan txertatu da, modan dago. Pandemiak azaleratu du beharra dugula arazo batzuei modu komunitarioan erantzuteko eta diskurtso honek indarra hartu du. Parte hartze komunitarioa gorantza egiteko baldintzak landu daitezke.
- Politika publiko indartsuak ditugu. Babes politikoa dago, konplizitatea eta konpromisoa dago arduradun politikoekin.
- Bitarteko ekonomikoak eta baliabideak ditugu. Gaitasuna eta ezagutza ditugu.
- Testuingurua: haustura sozialak, digitalak, ekonomikoak, kapitalak... krisi/aldaketa momentua. Gaur egungo ziurgabetasun-egoerak eragiten digu gaurkoak biharko balio ez izatera pentsatzera. Aldaketarako gaitasuna.
- Beharraren kontzientzia dago. Parte-hartzeak administrazioan gero eta pisu handiagoa du, ondo ikusita dago eta erakunde publikoen predisposizioa dago
- Haur, nerabe eta gazteekin lan egiteak berrikuntza aukerak dakartza: ideia freskoak, lan egiteko modu berriak...
- Gertutasuna eta iraunkortasuna: gertutasunak laguntzen du beharrak eta indarguneak azkar identifikatzen. Hainbat profesional erreferentziazko pertsonak izatea. Zerbitzu asko iraunkorrak dira.
- Informaziorako edota komunikaziorako gero eta tresna gehiago daude.



**AHULEZIAK eta
MEHATXUAK**



- Orain arteko funtzionamenduak pisu handia du eta norabidea aldatzea zaila da. Lege eta araudien zurruntasuna: protokoloak, etab. Burokrazia handia, eta hau oztopoa izaten da lan egiteko bide berriei aukerak emateko.
- Udalak zertarako gaude? Udalok betetzen dugun rolaz hausnartu. Udala eta beraien egitura eta barne-antolamendua ez dago honetarako pentsatuta. Udalaren rola berdefinitzea dagokigu.
- Asistentzialismotik lan egin izan da komunitatearekin eta kultura horretatik ari gara, horrek harremanak beste era batean eraikitzea zailtzen du.
- Lan-dinamikak zaharkituak dira, eta inertziak jokatzen dugu. Lan egiteko modu berriak behar ditugu. Izan ere, erakundeetan espezializatzeko joera dago, egiturak oso zurrinak dira eta zatituta gaude egitura estankoetan.
- Egitura zurrinak, departamentuak eta askotan pertsonalak. Pertsonak desagertzen direnean zer gertatzen da eraiki denarekin? Galera bat dago.. Inplikazio pertsonalaren menpe dago proiektua garatzea.
- Ez dugu espaziorik ezta dedikazio nahikorik ere, proiektuak garatzeko. Instituzioetan parte hartze kultura falta da. Horrela, askotan, ekintzak errepikatu egiten dira (sail edo gune ezberdinetatik) ingurukoa zertan dabilen ez dakigulako.
- Sail batzuen zilegitasun falta erakundeetan: gazteria, partaidetza... lan hauek balioan jartzeko beharra, ez dira ondo saltzen.
- Udal barneko botere-guneak, hierarkia, botere-harremanak.
- Aldaketen aurrean erakunde eta profesionalen aldetik erresistentzia handiak, boterea galtzeko beldurra.
- Erakundeetan konfiantza-guneak sortzeko zailtasunak. Harreman ahulak eta konfiantza harremanak eraikitzeko gai ez izatea.
- Administrazioarekiko mesfidantza, politika herritargotik urrunduta. Aldaketarako indar handia behar da. Herritarrak nekatuta eta itxaropen-falta dute.
- Gazteek politikarekiko duten desafekzioa
- Gazteen konpromisoarekiko ikuspegia: 12 urtetik aurrera ezer ez
- Zerbitzuetako erabiltzaileekiko urruntasuna.
- Legegintzaldiarekiko menpekotasuna (lau urteko muga).
- Profesional asko motibaziorik gabe. Kasu askotan erakundearen eta profesionalaren arteko talka; ikuspegi eta interes desberdinak eta praktiken arteko talka
- Boluntarismo asko dago eta profesionalak nekatuta. Haur, nerabe eta gazteekin ari diren profesionalen kasuan, lan-baldintzak eskasak dira.
- Tokiko erakunde eta zerbitzuetako langileen baldintzetan desoreka handiak. Zerbitzu publikoak eta azpikontratazioak.
- Aitortza- eta ezagutza-falta saretik kanpo ari diren eragileena



- Politika publikoak ematen duten etekinaren arabera neurtzen dira, dirutan. Eta honelako prozesuek beste balio batzuk dituzte eta zailagoak ikusarazteko. Emaitzak ez dira berehalakoak izaten. Baina aldi berean batzuetan helburuak ez dira argiak: zertarako? Zein da helburua? Noizko?
- Lidergo-falta handia dago, ausardia falta. Ez dago borondate politikorik. Lidergoa falta da erakundeetan komunitatea indartu eta sustatzeko.
- Diskurtsoa badago, baina lanerako markoa falta da. Ez dago diskurtso partekaturik ekintza komunitarioaren inguruan. Ez dago marko bateraturik. Sarri hitz berarekin gauza ezberdinak esan nahi ditugu, edo modu ezberdinean ulertzen dira. Benetako eztabaidak errazten ditugu?
- Parte hartzea ez da behar baten moduan ikusten. Parte hartzeko aukera gutxi eta ohitura falta. Partaidetza-prozesuak puntualak eta jarraikortasun logikarik gabe antolatzen dira. Partaidetza “simulakroak”.
- Ekintza komunitarioa edo parte hartzeko proiektuak arnas luzekoak dira, eta emaitzak epe luzera ikusten dira. Gaur egungo gizarteak, berehalako emaitzak eskatzen dizkigu. Horrela bada, era honetako prozesuak bideratzerakoan, espektatibak, aukerak eta epeak mahaigaineratu behar dira. Parte hartzea zenbakitan neurtzen da, eta intangibleak du garrantzia gehiago.
- Herri-eragile beteranoak, batzuetan beste batzuei egiten uzten ez dietenak. Komunitatearen feudo txikiak: nora iritsi jendearengana?. Komunitatea ez da bakarra, komunitate bat baino gehiago komunitate berean.
- Herritar aktibo gutxi; parte hartzeko interes falta. Hala ere, jendeak ez parte hartzeak ez du esan nahi parte-hartzailea ez denik. Guk nahi dugunean eta guk nahi dugunari buruz hitz egitea da parte hartzea? Herritarrak, eragileak duten eta behar duten erritmoa eta administrazioak duena ezberdinak dira eta zaila da denak asetzea
- Errelebo falta
- Haur, nerabe eta gazteekin lan egiterakoan helduen figuratik lan egitea.
- Baliabide-falta, harremanetarako espazio-falta (pandemiak erakutsi ditu); jendea entzuteak denbora/formakuntza eskatzen du.
- Sektore pribatuak duen indarra
- Indibidualismoa, eta honek dakarren bakardade soziala eta bazterkeria soziala. Gazteen kasuan sare-sozialen erabilera okerrak areagotzen du. Komunikabideek ere hauspotzen dutena. Gizartean gero eta haustura handiagoa: aurreiritziak, konfiantza-falta...

